

19/06 IRIZPENA

Nélida Zaitegi, lehendakaria
Xabier Aizpurua
Ainara Ibañez
Iñaki Orbe
M^a Teresa Ojanguren
Begoña Pedrosa
Ismael Redondo
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluko Batzorde Iraunkorraren 2019ko martxoaren 14ko bilkurara alboan zerrendatutako kideak joan ziren. Bertan, aho batez eman zen ondoko irizpena: **EAEko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan ikasturte bakoitzeko eskola egutegia arautzeko oinarritzko arautegia finkatzen duen Agindua 3. aldiz aldatzeko Agindu proiektuari buruzkoa.**

I.- AURREKARIAK

Ikastetxeek beren autonomiaz baliatuz antolatzen eta planifikatzen dituzte beren eskolako jarduerak. Jarduera horiek urte barruan burutu behar direnez, eskola egutegi bat finkatu behar da ikasturte bakoitzerako.

2008ko martxoaren 10eko Aginduak, 2013ko uztailaren 3ko eta 2016ko maiatzaren 6ko aginduen bidez aldatua izan zenak, zehazten du zeintzuk diren ikastetxeek -beren autonomiaz baliatuz- ikasturte bakoitzeko eskola-egutegia egin eta onesteko kontuan hartu behar dituzten oinarritzko arauak, horrela beharrezko antolakuntza- eta pedagogi-koherentzia bermatzeko.

II.- EDUKIA:

Dekretu proiektu honek artikulua bakarra eta azken xedapen bat ditu.

Artikulu bakarrak aldatzen du 2008ko martxoaren 10eko Aginduaren 5. artikuluko 2. paragrafoa, araubide berezia duten hizkuntza-irakaskuntzako ikastetxeei buruzkoa. Azken Xedapenak dio noiz sartuko den indarrean dekretua.

III. - BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Ikastetxe eta plangintza zuzendariaren memoriak dioen bezala, agindu hau aldatzeko arrazoa urtarrilaren 11ko 1/2019 Errege Dekretua da, zeinaren bidez ezartzen baitira araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzetako tarteko B1 mailaren, tarteko B2 mailaren, C1 maila aurreratuaren eta C2 maila aurreratuaren ziurtagiri ofiziala lortzeko probetan aplikatzeko oinarrizko ebaluazio-printzipio komunak. Dekretu horrek hauex dio bere 5. ataleko 3. artikuluan: *“ziurtagiria eskuratu nahi duten hautagaiek proba espezifikokoaren zati guztiak egin ahal izango dituzte eta zati horietako edozein gainditzea ez da izango ezinbesteko baldintza gainerako zatiak egin ahal izateko”*.

Xedapen honen arabera, Hizkuntza Eskola Ofizialek ahozko proba bat egin behar diete matrikulatutako ikasle guztiei bi deialdietan, idatzizko proba gainditu ala ez. Orain arte, idatzizko proba gainditzen zuten ikasleek bakarrik egiten zuten ahozko proba.

Horregatik, agindu proiektu honek proposatzen du irakasleek ebaluazio probetan eskaintzen duten denbora luzatzea 45 ordutik 55 ordura eta, ondorioz, eskolak emateko denbora murriztea 130 ordutik 120 ordura.

Kontseiluak ez du begi onez ikusten egutegia aldatzeko proposamena. Uste du ikasleei eskolak emateko ordutegia murriztea, bestelako aldaketarik egin gabe (curriculumean, antolakuntzan...), kaltegarria dela irakaskuntzaren kalitaterako eta proposatzen du neurria berriro aztertzea.

Alderdi puntualak:

- Zioen azalpena: maiatzaren 25ko Aginduari egiten zaion erreferentzia ez da zuzena, maiatzaren 6ko Agindua da aipatu behar dena.
- Artikulu bakarra: akats bat dago artikulua izendatzean. 2016ko Aginduaren 5. artikuluko 2. atalekoa da.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2019ko martxoaren 15ean

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sin.: Nélida Zaitegi

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA